

PIRINIOETAKO GOI-IBILALDIA

TESTU ETA ARGAZKIAK



Juanjo Muxika Izagirre
(Itsasondo, 1948)

Euskal Herriko mendiak ez ezik, Iberiar eta De-
mandako mendizerrak ezagutzen ditu, eta Euro-
par mendiak, Pirinioak eta
Alpeak ere ezagutzen ditu.



Pont de Espagnetik Baysellance aterperako bidean. Parez pare Comachibosa / Vinhamalako harresi ikusgarria

Goierriko Mendizale Beteranoak taldeak, 2014, 2015 eta 2016 urteetan zehar, Pirinioetako goi-ibilaldia burutu du Bizkaiko Golkotik Me-
diterraneo itsasoraino.

Hendaiatik abiatu eta Banyulsera Pirinioetako Goi Ibilaldia (PGI) oinez egitea planteatu zenean, erreferentzia gisa Georges Veron eta Jè-
rome Bonneauxen liburu-gidak hartu ziren. PGI hori, nagusiki, egungo Frantziako estatuan zehar doa, Pirinioen iparraldetik, Euskal Herriko,
Bearnoko, Okzitaniako eta Kataluniako lurretan zehar, baina Espainiako eta Andorrako estatuetan ere sartzen da, Euskal Herriko, Aragoiko
eta Kataluniako lurak zeharkatuz, erliebeak edo bideen egokitasunak hala eskatzen duenean. PGI hori bestalde, ipar-isurialdeko IL/GR-
10 eta hego-isurialdeko IL/GR-11ren arteko ibilbidea dela esan daiteke eta, orokorrean, horiekiko altuera handiagotik doala, batzuetan
aipatutako bide horietako bidezidorrekin bat egin arren.



Vielhako Ospitaletik Restancako aterperako bidean

Ibilbide horrek, gailur, aintzira eta lepoen segida bat jarraitzen du, tontor jakin batzuetatik ere pasatuz, hala nola, Okabe, Otso-gorrigaña, Tuc de Molières, Carlit, Canigó eta abarretatik, tartean dauden aterpetxe batzuetatik beste batzuetara igaroz (Resposmuso, Baysse-lance, Biados, Restanca, Les Bouillouses, Merialles, Cortalets, etab.). Zeharkaldi handi horrek ez du zailtasun tekniko berezirik baina gogorra da, duen luzeragatik, ibilaldi bakoitzaren iraupenagatik, dituen desnibelengatik eta zeharkatzen dituen zelai, harritza eta gainerakoengatik.

Goierriko Mendizale Beteranook egindako zeharkaldia, 2014ko apirilean hasi genuen eta 2016ko abuztuan bukatu. 37 etapa izan dira guztira eta 775 km egin dira oinez 247 orduan, batez beste etapa bakoitzeko 21 km eta 6 ordu eta 50 minutuko ibiliekkin. Igoeratan metatutako desnibela 41625 m-koa izan da (etapako 1125 m batez beste) eta jaitsieratan metatua 43360 m (batez beste 1170 m etapako). 37 etapa horietatik 9, Mendebaldeko Pirinioetan eginak izan dira, 11 Erdialdeko Pirinioetan eta 17 Ekialdeko Pirinioetan. Lehenengo 11 egun bereko joan-etorrietan eginak izan dira, ondorengo 8ak, 2 eta 3 eguneko irteeratan eta, azkeneko 18 etapak, 6na eguneko (astebeteko) 3 irteeratan (2014, 2015 eta 2016ko abuztuetan).

Ikuspegi teknikitik begiratuta, etaparik gogorrera edo zailena Benasque goitik dagoen La Besurtatik abiatu eta Vielhako Ospitalean, N-230 errepidean, amaitutakoa izan da, Tuc de Molières (3010 m) gainera igo eta argi ibili beharreko harritzetan zehar jaitsi behar izan zelako. Igoera-jaitsieratan desnibel metaturik handiena bildu duen etapa, berriz, Andorran egindakoa izan da Serratetik abiatu eta Vall d'Inclesen bukatutakoa (1725 m igoeretan eta 1560

m jaitsieretan). Etaparik luzeena, 34 km-koa izan da eta berak du jaitsiera metaturik handiena ere, 2305 m-koa hain zuzen ere, Cortaletseko aterpetxetik abiatu eta Amelie les Bainsen bukatua. Zeharkaldian zehar, 20 gailur igo ditugu eta horien artean aipagarriak dira Tuc de Molières (3010 m), Pica del Carlit (2920 m) eta Canigó (2785 m). Azken bi gain horiek mendizale askok igotzen dituzte eta guk igotzean ere mendizale asko topatu genituen horietan.

Pirinioetako Goi-ibilaldia da Goierriko Mendizale Beteranoen taldeak bere 8 urteko mendi-ibilietan egin duen handiena eta gogorrera. Ibiltarien adina, batez beste 66 urtekoa izan da baina batek baditu 78 urte ere. Ibilaldi bakoitzean 30 mendizale ibili dira batez beste. Mendizale gehien 3. etapen bildu ziren, 58 Elizondotik Aldudera joateko eta gutxien 17., 18. eta 19. etapetan, 16 mendizale, Hèasetik Benasque inguruko San Jaime zubiraino joateko. Ezaugarri horiek denak kontuan hartuta, jarduera honi meritu handikoa izan dela irizten diogu. Ibilaldietan zehar, kontuan hartu beharreko inolako ezbehar fisikorik ez da izan eta taldeko giroa oso atsegina izan da. Bestalde, eguraldiarekin ere zorte handia izan da eta oso ona egin digu. Aipagarriak dira halaber, Mendebaldeko, Erdialdeko eta Ekialdeko Pirinioetako etapetan ikusitako paisaia zoragarriak, desberdinak bezain ugariak, baina bereziki aipatzekoak dira Ekialdekoak. Horien artean nabarmentzekoak dira zentzu horretan, partaideentzat ezezagunak ziren Puy-morens-Les Bouillouses arteko etapa Carliteko igoerarekin eta Meriallesko aterpetik Cortaletseko aterperakoa tartean Canigóra igota. Ilunabarrak eta ortzadarrak, inoiz ahaztuko ez diren irudi ederrak utzi dituzte mendizaleen oroimenean. Gertakari bitxi

artean aipagarria da Frantziako Tourrak 12. eta 13. etapen noranzkoa aldatzera behartu gintuela etapa Cauteretsen amaitzen zelako eta arrazoi horregatik 2 etapa alderantzira egin genituela, hots, E-tik M-rantz.

Aipagarria da halaber Walter 2000-Merialles arteko etapan, inoiz ikusi gabeko sarrio-talderik handiena ikusi genuela, 100 burutik gorakoa. Esan beharra dago, Pirinioetako ibilaldi hauek, 3 urtean zehar, beste ibilaldi batzuekin konbinatuta egin direla, urtaroen, eguraldiaren eta aukeren arabera. Noizbait ibilaldi honetan partaide izandakoak 82 izan gara eta izenak nahiz bakoitzak egindako etapak ibiltarien zerrendan azaltzen dira.

Guk egindako ibiliak eta jarduerak xehetasun handiagoz eza-gutu nahi dituztenek, gure webgunera jo dezakete: www.gmb.eus eta bertan aurkituko dituzte guk 8 urteotan egindako ibilaldiak, argazkiak, bideoak, kronikak, trackak eta gainerakoak.

ATLANTIKOTIK LASKUN-EKO ZIRKURA

	Luzera	Denbora	Desnibela +	Desnibela -
1-Hendaia-Lizuniagako mendatea	26	6:50	1300	1200
2-Lizuniagako mendatea-Elizondo	28	6:35	1030	1045
3-Elizondo-Aldude	16	4:35	925	755
4-Aldude-Orreaga	18	4:55	1275	700
5-Ibañeta-Harpea-Beherobia	23	6:05	720	1435
6-Beherobia-Iratisoro	19	6:10	1495	810
7-Iratisoro-Iturtzaeta mendatea	18	4:50	1705	1170
8-Iturtzaeta mendatea-Belagua	16	4:45	950	1180
9-Ernaz lepoa-Laskun	17	5:20	615	1460

Walter 2000tik Mariallesko aterperantz



Atlantikoaren eta Bearnoko lurren artean egiten dira lehenengo 9 etapak, denak ere Euskal Herriaren zatiketa politiko-geografiko arbitrarioaren arabera, GR 10ari edo GR 11ari jarraituz. Zati honetan Orhiren gailurra da 2000 m-tik gora igotzen den bakarra. Añamendiko karstek igarotzen da zeharkaldia eta Pirinioetako harribitxi den Laskun-eko zirkuan amaitzen da.

LASKUN-ETIK PIRINIOETAKO PARKE NAZIONALERA

	Luzera	Denbora	Desnibela +	Desnibela -
10-Oza-Candanchú	26	7:10	1175	760
11-Candanchú-Portalet	17	5:50	1120	1015
12-Pont d'Espagne-Respomuso aterpea	21	7:40	1395	725
13-Respomuso-Caillou de Soques	15	5:50	630	1325
14-Pont d'Espagne-Baysellance aterpea	15	6:10	1330	150
15-Baysellance aterpea-Gavarnie	19	5:35	320	1620
16-Gavarnie-Hèas	17	6:30	1090	1025
17-Hèas-Parzan	25	8:45	1590	1725

Laskun-go zirkutik Barroudeko zirkuraino, Pirinioetako parajerik ederrenetakoa izango den inguru batetik egiten da zeharkaldia. Mendi-aterpez ondo hornitutako eremua da eta Ossau, Balaitus, Comachibosa/Vinhamala eta Gavarnieko mendiguneak zeharkatzen dira.



Banyuls-sur-Mer-era iristean

FRANTZIAR PARKE NAZIOALETIK ARANGO HARANERA

	Luzera	Denbora	Desnibela +	Desnibela -
18-Parzan-Biadós aterpea	22	6:55	1495	930
19-Biadós aterpea-Estós-San Jaime zubia	22	6:35	1020	1460
20-La Besurta-Vielhako Ospitalea	20	9:00	1185	1500
21-Vielhako Ospitalea-Restanca aterpea	16	7:40	1175	750
22-Restanca aterpea-Bonaigua mendate	21	6:30	1430	1355

Aterpe gutxiago daude zona honetan. Ibiliaren zati handi bat bidez kanpo egin behar da, batzuetan 3000 m-tik gorako gailurrrak zeharkatuz. Ibilbide laburrena egin nahi izateak eta inguruko mendien erliebeak hegoaldeko isurialdea aukeratzera eraman gaitu. Aipagarria da La Besurta-Vielhako ospitaleko etapa, Tuc de Molières (3010 m) gailurrera igoz egin zena.

GARONATIK PUYMORENS MENDATERA

	Luzera	Denbora	Desnibela +	Desnibela -
23-Bonaigua-Esterri d'Aneu	21	8:10	665	1770
24-Esterri d'Aneu-Tavascan	25	9:40	1620	1460
25-Tavascan-Àreu	19	6:50	1270	1140
26-Valferrera-El Serrat	23	8:50	1525	1790
27-El Serrat-D'Incles-Soldeu	23	9:00	1725	1560
28-Soldeu-Puymorens mendatea	24	7:30	1235	1055

Eremu hau zeharkatzeko bi isurialdeen artean aukeratu beharra dago: iparraldekoa, Pirinioetako mendikate osoko parajerik ederrena eta basatienetako den Ariège mendien desnibel handiak dituena, edo hegoaldekoa. GMBk bigarrena aukeratu zuen laburragoa baita Andorrako lurretara iristeko.

EKIALDEKO PIRINIOAK

	Luzera	Denbora	Desnibela +	Desnibela -
29-Puymorens-Les Boullouses	21	7:50	1400	1275
30-Les Boullouses-Eina	19	4:55	255	700
31-Eina-Ulldeter-Vallter 2000	23	8:40	1700	1185
32-Vallter 2000-Marialles aterpea	23	6:35	555	1010
33-Marialles aterpea-Cortalets aterpea	14	6:30	1150	620
34-Cortalets aterpea-Amelie les Bains	34	9:30	315	2305
35-Amelie les Bains-Las Illas	20	6:50	1380	995
36-Las Illas-l'Ullat lepoa	24	6:05	1030	620
37-l'Ullat lepoa-Banyuls	24	7:45	830	1780

Oso etapa ederrak dira Kataluniako mendietan egiten direnak. Carlit mendigunea eta Goi Cerdanya zeharkatu ondoren Nuriako mendatetik jarraitu eta Roc Colomeraino iristen da hain ezaguna den Canigó gailurrera igo aurretik. Azkeneko etapak muga-leerroko gailurretatik egiten dira, Mediterraneoaren ikuspegi zoragarriekin bukatzeko.

PIRINIOETAKO GOI-IBILBIDEA ZENBAKIAN

	ETAPAK	LUZERA	DENBORA	IBILTARI KOPURUA	DESNIBELA +	DESNIBELA -
GUZTIRA	37	775	247		41360	43360
BATAZ BESTE		21	6:40	30	1125	1170